

# **IKASLEAREN GIDA**

## **Ingurumen Psikologia**

**IKASTURTEA:  
2014-2015**

# TITULAZIOA: GRADUA PSIKOLOGIAN

ZENTRO: PSIKOLOGIA FAKULTATEA  
IKASTURTEA: 2014-2015

## IKASLEAREN GIDA

### 1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

#### IZENA: Ingurumen Psikologia

KODEA:25069

IKASTURTEA: 2014-2015

IRAKASGAI MOTA =P (D = adarreko oinarrizkoa; S = beste adar batzuetako oinarrizkoa; Y = gradu amaierako proiektua; O = nahitaezkoa edo P = hautazkoa)

ECTS Kredituak: 4,5

kurtsoa: Zehaztugabea

LAUHILEKOA: 2

Bete beharrekoak: -

Gomendioak:

### 2. IRAKASLE-TALDEAREN DATUAK

IZENA: Laura Vozmediano Sanz

ZENTRO/SAILA: Psikologia Fakultatea / Gizarte-Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia

ALORRA: Gizarte-Psikologia

BULEGOA:

e-posta:

laura.vozmediano@ehu.es

TLF: 943015286

URL WEB:

IZENA: César San Juan Guillén

ZENTRO/SAILA: Psikologia Fakultatea / Gizarte-Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia

ALORRA: Gizarte-Psikologia

BULEGOA:

e-posta:

cesar.sanjuan@ehu.es

TLF: 943015664

URL WEB:

IZENA:

ZENTRO/SAILA:

ALORRA:

BULEGOA:

e-posta:

TLF:

URL WEB:

### 3. IRAKASGAIAREN BERARIAZKO ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Irakasgaiaren berariazko gaitasunak
1	Portaeraren antzeztokian agertzen diren gizakiaren alderdi psikologikoak eta sozialak aztertzen jakitea
2	Psikologia ekologikoaren eta psikologia arkitektonikoaren aplikapen esparruak bereizten jakitea
3	Hiriko bizitza kalitatea hobetzeko erabiltzen diren ingurumen esku-hartze estrategia arruntak ezagutzea
4	Portaera ekologiko arduratsuak bultzatzeko, baloratzeko eta neurtzeko erabiltzen diren teknikak eta tresnak erabiltzen jakitea
5	Inguru gaineko eragina ebaluatzeko tresnak eta indikatzaileak ezagutzea eta bere aplikapenaren ardura etikoak aztertzen jakitea
6	Disziplina honetako dokumentu-iturriak ezagutzea, eta txosten teknikoak ahoz eta idatziz aurkezteko gai izatea
7	Disziplinarteko taldeetan lan egiteko gai izatea
8	Ingurumen psikologiaren dokumentu-iturri ezberdinak erabiltzen jakitea, eta informazioa eskuratzeko beharrezkoak diren estrategiak menperatzea.

### 4. PROGRAMA

#### 4.1. PROGRAMA TEORIKO ZABALA

Ikasgai honetan, eduki teorikoak sei gaietan lantzen dira. Lehenengoan, gizakia eta ingurunearen arteko harremanak eta Ingurune Psikologian erabiltzen diren metodologiak aztertzen dira. Bigarreanean, ingurunearen pertzepzioa eta esanahian alde batetik, eta inguruneeko esperientzia emozionalean bestetik, sakontzen da. Hirugarren eta laugarren gaietan hiri inguruneeko esperientzia eta egoitza asetasuna dira aztergai. Hiriko arazoan alderdi psikosozialetan ere sakontzen da. Bosgarren eta seigarren gaietan, ingurumenaren aldeko jarrerak eta garapen iraunkorra lantzen dira: hasteko, norbanakoen jokabideak, jarrerak eta sinesmenak aztertzen dira, eta bukatzeko erakundeen eta enpresen rola aurkezten da.

*Klase teorikoekin 1., 2., 3. eta 5. gaitasunak garatzen dira.*

Gai zerrenda zabala:

#### **1 gaia. Gizakia- ingurumena harremanaren azterlana**

Ingurumen Psikologiak, gizakiak bere ingurunearekin duen harremanetan esku hartzen

duten egiazko nahiz alegiazko elementu guztiak jorratzen ditu. Harreman horren deskribapen eta azalpenaren ondorioz, ingurumen psikologoaren eginkizun ezberdinak eta ingurumen psikologiaren askotariko esparruak ezagutzen joango gara ikasgaiaren zehar.

Lehen gai honetan, gizakiak bere ingurunearekin duen harremanari buruz hausnartzen hasiko gara, eta ondoren, diziplinaren hastapenak, bilakaera eta gaurko eguneko egoera aurkeztuko dugu. Atal horretan, bereziki garrantzitsua izango da Ingurumen Psikologiaren azterketa eta aplikazio eremu handi biak (Psikologia Arkitektonikoa eta Psikologia Ekologikoa) bereiztea. Azkenik, diziplinaren definizioa eskaintzeari ekingo zaio, eta baita bere ezaugarri nagusi eta egungo lan esparruei ere.

Gaiaren eskema:

- 1.1.- Ingurumen Psikologiari sarrera
- 1.2.- Ingurumen Psikologiaren historia laburra
  - 1.2.1. Historiaurrea
  - 1.2.2. Instituzionalizatzeko denboraldia
  - 1.2.3. Sendotze eta garatze denboraldia
- 1.3.- Ingurumen Psikologiaren garapenean eragina izan duten faktoreak
- 1.4.- Ingurumen Psikologiaren bi eremuak: Psikologia Arkitektonikoa eta Psicología Ekologikoa.
- 1.5.- Definizioak, ezaugarriak eta ikerketa eta aplikazio profesionalaren eremuak

## **2 gaia. Ingurune-pertzepzioa eta esangura**

Gizakiaren jokabidea ulertzeko gakoa jendeak inguruan duen mundua nola ikusten duen azaltzean datza. Ulertzeko modua, ezagutza bide gisa, ez da bideragarri egiten duen bide fisiologikoa bakarrik amaitzen; batez ere ezagutza hori jabetu, antolatu eta erabiltzeko moduarekin du zerikusia. Hala ere, ezin dugu ahaztu hautemate prozesuek ingurumenaren ezagutzan duten eginkizuna, beraz, horren azterketaren funtsezko alderdi batzuei ekinez hasiko dugu gaia.

Baina ingurumen psikologoak garen heinean, jakin badakigu hautematea ez dela bakar-bakarrik gailu sentsorial jakin batzuetan oinarritzen, baizik eta, nolabait ere, lengoaiaren oinarritutako gizarteratze prozesu baten menpe dagoela, eta azken horrek ingurumenaren ikurrak bereganatzea baldintzatuko duela. Horrexegatik, Canterrek eta Stringerrek (1978, 31. or.) adierazi legez, handiagoa da ingurumen psikologiaren gizarte psikologiarekiko lotura, hautematearen psikologiarekikoa baino. Ikuspegi honetatik, ingurumen estimuluei eskainitako esanahi horien bereganatze fisikoa baino garrantzitsuagoa izango da guretzat hemendik aurrera, eta bigarren gaiaren gainerakoa ingurumen esanahiari eta espazioez jabetzeko prozesuei ekingo diegu. Azkenik, paisaiaren pertzepzioan geldituko gara, Ingurumen Psikologian ikerketa esparru garrantzitsua delako, eta azken urteetan paisaia alorreko lehentasunekiko interesetik zenbait paisaia -bereziki, naturalak- errestituzionatzeko gaitasun eta aldagai bi horien arteko harreman bilakatu baita.

Gaiaren eskema:

- 2.1. Ingurunearen kognizioari sarrera: Nola hautematen dugun ingurunea
- 2.2. Pertzepzioa eta esanahia: Ingurunearen esperientzia emozionala
  - 2.2.1. Ingurunearen esanahia: osagaiak
  - 2.2.2. Ingurunearen pertzepzioaren prozesua: faseak
- 2.3. Gai bereziak
  - 2.3.1. Paisaiaren pertzepzioa: paisaien lehentasunei buruzko ikerketak
  - 2.3.2. Paisai naturalaren gaitasun errestituzionatzailea (eta hiriko paisaiak)

## **3 gaia. Hiriko espazioaren esperientzia**

Hiri eremuari eskainiko zaizkion bi gaietako lehenean, hiri eremua bera ulertzeko

oinarrizko kontzeptuak planteatzen dira. Horrela, hurrengo gaian egungo hirien berariazko erronka eta zailtasunetan, “eko-patologiatzat” bereiz daitezkeenetan, eta hiri eremuetan horiek eta giza jokabideak dituzten erlazioan sakontzea ahalbidetuko diguten ezagutzak bereganatuko dituzte ikasleek. Gai honetan, hain zuzen ere, gizakiak mapa kognitiboan bitartez -ondoren orientatzeko eta espazioan behar bezala mugitzeko baliatzen dituztenak (wayfinding)- erabiltzen dituen inguruneen informazio espaziala kodetu eta biltegitratzen duela sakontasunez jorratuko dugu. Ondoren, esanahiaren eta emozioen eta hiri eremuaren maila ezberdinen arteko harremanetan sakonduz, Ingurumen Psikologiaren ikuspegitik funtsezkoak diren hiru aldagai aztertuko ditugu: egoitza asetasuna, Hiriko identitate soziala eta lekuarekiko atxikimendua. Gaia ixteko, ikasleek ikasgaiaren egiten den landako praktikan erabiliko duten eraikitako ingurunearen ebaluazio tresna aurkezten da: Ebaluazio post-okupazionala.

Gaiaren eskema:

- 3.1. Mapa kognitiboak eta wayfinding
  - 3.1.1. Mapa kognitiboaren funtzio psikologikoak
  - 3.1.2. Mapa kognitiboaren elementuak
  - 3.1.3. Mapa kognitiboak eta distortsioak
  - 3.1.4. Orientazioa eta wayfinding
- 3.2. Egoitza asetasuna
  - 3.2.1. Egoitza azterketaren mailak
  - 3.2.2. Etxea integrazio sozialaren elementu bezala
  - 3.2.3. Definizioa eta eredu teorikoak
- 3.3. Hiriko identitate soziala eta lekuarekiko atxikimendua
- 3.3. Ebaluazio post-okupazionala

#### **4 gaia. Eko-patologiak eta giza portaera**

Portaerak berak alde aurretik manipulaturako ingurumena baldintzatzen du giza portaera hori. Emaizazko espiralak osasun eta gaixotasunaren prozesuak ikuspegi ekologiko batetik azaltzeko balio du. Hiri inguruneari bagagozkio, hiriak planetako arazo sozio-ekonomikorik larrienak hartzen ditu bere hormen artean. Bereziki dramatikoak dira hirugarren munduko hiriguneak, hondakinak bideratu, ezkutatu edo birziklatzeko inolako azpiegiturarik gabe, osasun arazo ugariaren paisaia eta eragile bihurtzen dituztelarik. Muturretara heldu gabe, gure hiriek, beren askotariko bertuteen artean, giza jokabidearentzat kaltegarriak diren ondorioak barne hartzen dituzte; eta gai honetan jorratuko ditugu horiek. Ingurumen Psikologiako hiri arazoei buruzko azterlan klasikoak aurkeztu ondoren, eta biztanleriaren dentsitatea eta pilaketa adibidetzat hartuta, hiriaren beste eko-patologia batzuetan sakonduko dugu: zaratan eta delinkuentzian.

Gai honetan egingo dugun azken hausnarketa bat, hiri arazo batzuen kudeaketak eta gure jokabideak ingurumenean duen eraginak elkarren artean duten mendekotasuna izango da. Munduko biztanle gehienak hirietan bizi direnez, ingurune naturalari eragiten dioten jokabideak (energia kontsumoa, hondakinen kudeaketa, etab.) hiri ingurunean nola kudeatzen diren jakitea funtsezkoa izango da garapen iraunkorra (edo ez iraunkorra) lortzeko. 5. eta 6. gaietan jorratuko dira ingurumenean eragiten duten jokabideak.

Gaiaren eskema:

- 4.1. Hiri jokoera- eszenatoki bezala
- 4.2. Ikerketa klasikoak: biztanle-dentsitatea eta pilaketa
- 4.3. Arazo sozialak aztertzeko ikuspegi eko-urbanistikoa
  - 4.2.1. Kutsadura akustikoa eta giza jokoera
  - 4.2.2. Delituaren eta bere pertzeptzioaren ekologia
- 4.3. Hiriko bizikalitatearen Ekuazioa

## **5 gaia. Ingurumenaren aldeko jarrerak eta portaera ekologiko arduratsuak**

Azken bi gaiak Ingurumen Psikologiak gaur egun gizakiaren arazorik larrienetako batean egiten duen ekarpenarekin dute zerikusia: giza jardueraren ondoriozko ingurumenaren narriadura. Gure diziplinak, Psikologia Ekologikoa deitzen denaren esparru barruan, ingurumenaren inguruko usteak eta jarrerak, eta ingurunea eta baliabide naturalak zaintzeko -edo alderantziz, suntsitzeko- aztertu ditu. 5. gai honetan, ingurumenaren aldeko jarrerak eta gizabanakoaren, ingurumenarekiko jarrerak dituen hiritarraren, ikuspegitik "ekologikoki arduratsutzat" jotzen ditugunak (ingurumenaren gaineko eragina maila nahiko garrantzitsua izanik) aztertzea proposatzen da. Jokabide hori azaldu eta aurreikusteko garatutako eredu teorikoak aurkeztea da helburua, baina baita jokabide ekologiko arduratsuak sustatzeko esku hartzeak diseinatzeko erabiltzen den esparrua aurkeztea, eta jokabide horiek aldatzeko eta aldaketak denboran zehar iraunarazteko zailtasunak azaltzea ere.

Hori guztia banakako ikuspegi batetik 5. gai honetan; azken gaian ingurumenean eragina duten jarduerari berrekingo baitiegu, baina kasu horretan erakundeen eta enpresaren ikuspuntutik, garapen iraunkorrerako planteamenduak eta ingurumen kudeaketarako tresnak aintzat hartuta.

Gaiaren eskema:

- 5.1. Ingurumen kontzientzia vs. Gizartearen garapena
- 5.2. Ingurumen aldeko jarrerari eta sinesmenei buruzko ikerlanak
  - 5.2.1. Ingurumen aldeko jarrerak
  - 5.2.2. Ingurumenari buruzko sinesmenak
  - 5.2.3. Jokabide ekologiko arduratsuak auresateko ereduak
- 5.3. Ondorioak (Ingurune psikologoaren erronkak)

## **6 gaia. Garapeniraunkorra eta ingurumen kudeaketa**

Ingurumenean eragina duten giza jarduerak aztertzen ditugunean, gizarte moduan, gure erakundeen bitartez horren inguruan zer egiten ari garen planteatu behar dugu, nahitaez. Zentzu horretan, garapen iraunkorraren kontzeptua, gure ongizateak ondorengo belaunaldiana arriskuan ez jartzea lortzea azaltzen da sarri helburu gisa. Azken gai honetan kontzeptu hori aztertzen hasiko gara, eta ondoren, horretara erakundeen eta enpresen ikuspegitik nola hurbil gaitzkeen planteatu. Azken urteetan, ingurumen kudeaketarako hainbat tresna garatu dira, ingurumen psikologoak horretan izan dezakeen eginkizuna azpimarratuz. Ikasitakoa adibideen bitartez ulertzeko, enpresa baten eta erakunde publiko baten egiazko kasuak erabiliko ditugu. Gainera, aipatutako tresnen artean, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari arreta berezia eskainiko diogu. Azkenik, gaia (eta ikasgaia) ixteko, hainbat argudio planteatzen ditugu ingurumen psikologoa izango den batek egungo testuinguru sozio-ekonomikoan egin dezakeen ekarpenari buruz hausnartzeko.

Gaiaren eskema:

- 6.1. Garapena vs. iraunkorra?
- 6.2. Ingurumen kudeaketa
  - 6.2.1. Kontzeptua eta tresnak
  - 6.2.2. Enpresa bateko ingurumen kudeaketa sistemaren adibidea
  - 6.2.3. Erakunde publiko bateko adibidea
- 6.3. Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluaketa: Ingurumen psikologoaren rola
- 6.4. Ingurumen eta gizarte psikologoa krisi ekonomikoa eta ekologikoaren aurrean: hausnartzeko ideiak

## 4.2. PRAKTIKA EGITASMOA (\*)

Ikasgaiaren gaitasunak lortzeko, proposatutako irakaskuntza metodologia saio magistralak eta orientazio jarduera praktikoagoak bateratzea da. Bigarren horietan ikasitakoa arazo zehatzetan aplikatu, saio magistraletan landutakoaren gai osagarri buruz eztabaidatu eta ikasgaiaren zeharkako gaitasunak gartuko dira. **E-gela** funtsezko tresna izango da ikasleari jarduera bakoitzerako behar dituen lan plana eta materialak bideratzeko, eta baita, ikasleari, etekinik handiena lortzeko bere ahalegina ardaztea ahalbidetuko dioten ebaluazio irizpideak eskuragarri izateko ere.

Ondoren, ikaskuntza modalitate ez magistralak eta horietako bakoitzerako plangintzan jasotako saioak aurkezten dira.

### **1. 2. 3. 4. eta 8. gaitasunak garatzeko jarduerak.**

Aparteko saio horietan, banaka zein taldeka landuko dira hainbat jarduera. Saio bakoitzean landutakoa dagokion testuinguru teorikoan jarri eta ikasturte amaieran portafolio pertsonal batean aurkeztuko da. Irakaskuntza modalitate ezberdinetan lan dinamikak aldatu egiten badira ere, kasu guztietan saio magistraletan ikuspegi teoriko batetik jorratu nahi diren gaietan sakondu, horiei buruzko adibideak jarri eta modu praktikagoan aztertzen dira. Beraz, saio hauetako bakoitzean landutakoa dokumentatzean eta portafolioan aurkeztean, gaitasun hauek bereganatu dituela eta ikastaroan zehar landutakoa koherentziaz integartzeko gai dela erakutsiko du ikasleak.

#### Ordenagailu praktikak (2 saio)

Saio hauetan, ordenagailuak ditugunez, ingurumen psikologiari buruzko iturri dokumental ezberdinetara heltzeko eta informazioa eskuratzeko beharrezko estrategiak menderatzeko gaitasuna landu ahal izango dute ikasleek. Saioak:

- Ikerketa arloak
- Esparru profesionalak

#### Gelako praktikak (5 saio):

- Paisaia “errestauradoreak”.
- Mapa kognitiboen analisia
- Jokabide ekologiko arduratsuak bultzatzea.
- Ingurumen Hezkuntza.
- Esku-hartzea katastrofe baten aurrean.

#### Mintegia (bi orduko saioa):

Mintegian gai ezberdinei buruz eztabaidatuko da, aldez aurretik ikasleei emandako materialak irakurri ondoren. Garrantzi publikoko gaiak dira, non ikaslea gai izan beharko baita bere inplikazioak diziplinaren ikuspegitik eztabaidatzeko, eta argi eta garbi diziplina anitzekoa den eztabaida batean eztabaidatzeko elementuak ekartzeko - gizarte zientzialari gisa-. Eztabaida horietan, gainera, teknikariek eta zientzialariek nahiz hiritarrek eta eragile publiko eta pribatuek esku hartu beharko dute.

Gaia: Eremu publikoa eta hiri ereduak, hiri diseinuetan erabakiak hartzeko eragileei buruzko hausnarketa eta, hiri eredu ezberdinen eragin psikosozialak, arreta berezia egungo hirien diseinu eta kudeaketa joerak (adibidez, Smart City eredu).

#### Landako Praktikak (bi orduko saioa):

Ikasgai honetan landako praktika bat egiten da, eta horretan, erakunde eraiki baten Ebaluazio post-okupaziola egiten dute ikasleek: ikasturte honetan, hain zuen ere, Carlos Santamaria eraikina izango da, Gipuzkoako Campuseko liburutegia hartzen duena, alegia. Klasean aurkeztutako tresna bat erabiliz, ikasleak, talde txikitik eta

irakaslearekin, eremua bisitatuko dute, horri buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko. Informazio hori eta erabiltzaile moduan duten esperientzia erabiliko dituzte eremuak eskaintzen dituen aukeren eta eraikin hau erabiltzen duten taldeen eta gizabanakoen beharrak eta nahiak alderatzek; eta, hala badagokio, hobekuntza eremuak hautemango dituzte.

### **1. gaitasuna garatzeko jarduerak.**

#### **Azken gelako praktika (bi orduko saioa):**

Egunerokotasuneko kasu baten azterketa Ingurumen Psikologian ikasitako edukiak eta estrategiak erabiliz. Azken praktika honen helburua bikoitza da: batetik, egungo kasu edo arazo sozial bat aztertuko da, eta horretan, ikasleak gizarte eta ingurumen arloko hainbat arazo edo gatazkaren inguruan aldeaz aurretik zituen iritziak eta ebidentzia zientifikoak gai horien inguruan dioena alderatu, eta izango den ingurumen psikologo gisa eman beharko du bere iritzia, eta ez hiritar gisa. Horretarako, hedabideek erruz jorratu eta gizarteaz eztabaida sortzen duten gaiak aukeratuko dira. Gainera, Esku Hartze Psikosoziako Minorra osatzen duten ikasgai ezberdinen ezagutzak eta azterketa barneratzea sustatzeko helburuarekin, beste bi ikasgai ezberdinetan aztertuko da gaia, eta 2015-2016 ikasturtean, hain zuzen ere, Psikologia Politikoa eta Gizarte Mobilizazioa eta Kultura aniztasuna eta Eleaniztasuna gizarte konplexuetan izenekoetan.

Kasuaren hautaketa ez dago itxita, ikasgelan amaierako praktika emateko momentuan puri-purian dagoen bat aukeratu beharko baita.

### **1. 6. eta 7.. gaitasunak garatzeko jarduerak.**

Ikasleek lan gehiago egiteko eta irakaslea arazoak komentatu eta zalantzak ebazteko eskura egoteko saio horietan, diziplinaren berriazko iturri dokumentalak ezagutzeko gaitasunak, ahozko eta idatzizko txosten teknikoak aurkezteko eta talde lana egiteko lantzeko talde lana egingo da lauhilekoan zehar. Beraz, jarraitutasuneko lana da. Kasu honetan bi irakaskuntza eredu erabiltzen dira, batetik, landuko diren edukietan sakontzeko (tailerrak) eta, bestetik, datu baseetan informazio zientifikoa bilatu eta edukiak aurkezteko (praktikak ordenagailuan). Lana egiteko, ikasleek hiruzpalau laguneko taldeak osatu eta diziplinaren aldizkari nagusienetako batek berriki plazaratutako ale bateko artikulua aukeratuko dute. Artikuluaren gaiari buruz lan egingo dute tailerraren azken saioan aurkezteko. Horretako, Ingurumen Psikologiako biltzar txiki batean egotearena egingo dute, non aurkezpen guztiak entzunez giza jokabidea ikuspegi berri guztietatik eta bere testuinguruan, zein ikasgai jorratu gabeko gaien arabera, aztertu ahal diren. Egindako aurkezpena eta erabilitako euskarri grafikoa (ppt edo antzekoa), ikasleek egela-n eskuragarri jartzen den arau sorta baten arabera ebaluatzen dira.

#### **Ordenagailu praktikak (3 saio):**

- Lanaren gaia aukeratzea eta datu baseetan informazioa bilatzea.
- Aurkezpena egiteko lana
- Aurkezpena bukatzeko lana.

#### **Tailerrak (5 saio):**

- Lanari buruzko argibideak, lehenengo irakurketa eta ideia orokorra ulertzea.
- Gaiari buruzko ikerketa lanak ezagutzeko, artikuluen arazoa, helburuak eta hipotesiak ulertzea, gidoiaren estruktura osatzea
- Metodoa, emaitzak eta hauen ondorioak ulertzea. Gidoia bukatzea..
- Ingurumen Psikologia Kongresua: Taldeen aurkezpenak (2 ordu).



## 5.-IRAKASGAIAREN PLANGINTZAKO KRONOGRAMA

ASTEA	D.I.	DATAK	EM	GP	OP	TA	M	LDP	Aurrez aurreko orduak	Aurrez aurrekoak ez direnorduak	Entregatzekoak
1	5	07/09-11/09	2		1				3	3	
2	5	14/09-18/09	2		1				3	3	
3	5	21/09-25/09	2	1					3	3	
4	5	28/09-02/10	2			1			3	3	
5	5	05/10-09/10	2		1				3	3	
6	4	12/10-16/10	2	1					3	3	
7	5	19/10-23/10	2			1		2	5	4	X
8	5	26/10-30/10	2				2		4	3	
9	5	02/11-06/11	2			1			3	3	
10	5	09/11-13/11	2	1					3	3	
11	5	16/11-20/11	2		1				3	3	
12	5	23/11-27/11	2		1				3	3	
13	5	30/11-04/12	0	1		2			3	3	X
14	3	07/12-11/12	0	1					1	2	
15	5	14/12-18/12	0	2					2	3	X
			<b>24</b>	<b>7</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>45</b>	<b>45</b>	

## 6. EBALUAZIO-SISTEMA (TEORIA ETA PRAKTIKA)

Ikasgai honetan gaitasunkako ebaluazio sistema erabiltzen da ikaskuntza adierazleekin. Bi ebaluazio modalitate daude: A modalitatea, irakasgaia jarraitzeko konpromisoa hartzen duen, klasera doan eta planteatutako jarduerak dagokion epean aurkezten dituzten ikasleekin erabiltzen da. B modalitatean, ordea, ikasgai osoa deialdi arrunteko azterketa baten bitartez ebaluatzen da. Azken hori, klaseetara joateko edo ikasturtean zehar jarduerak egiteko konpromisoa hartzen ez dutenentzat dago eskuragarri.

### A modalitatea – Klasera erregularitasunez joanda

Nota (10 puntutik)	Ebaluazio modua	Baldintzak
2 puntu arte	GP, LandaP, M eta OPko bi saioetan taldeka egindako jarduerak dokumentatuko duen portafolio pertsonala egitea.	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Klasera erregularitasunez joatea</li><li>▪ Portafolioa entregatzea (azken eguna: azterketarena)</li></ul>
puntu 1era arte	GPko azken saioari lotutako egiazko kasu baten azterketari buruzko banakako lana	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Kasuaren azterketa entregatzea (portafolian jasotakoa)</li></ul>
3 puntu arte	TAko saioetan eta OPko hiru saioetan egin eta ikastaro amaieran azaltzen den talde lana.	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Saio guztietara joatea</li><li>▪ Taldearekin azken tailerrean lan azaltzea (ez da idatzizko lanik aurkeztu behar)</li></ul>
4 puntu arte	Amaierako azterketa, test erakoa	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Deialdi ofizialaren egunean azterketa egitea</li></ul>
<b>Garrantzitsua:</b> Ikasgaia gainditu ahal izateko atal guztiak gainditu behar dira		

Eredu honetan, ikasleak azterketa deialdiari uko egiteko eskaria aurkeztuko ahal du fakultateko idazkaritza orokorrean, irakasleari igorritako eskaria eginik, gehien dela azterketen aldi ofiziala hasi baino hamar egun lehenago.

### B modalitatea – Amaierako azterketa

Nota (10 puntutik)	Ebaluazio modua – Amaierako azterketa (Urtarrila)
10 puntu arte	Amaierako azterketa mistoa: test erakoa eta irakaskuntza modalitate ez-magistraleko klaseetan egindakoen antzeko ariketa praktikoak

Eredu honetan, aski izango da azterketara ez agertzea, deialdiari uko egiteko.

Sistema biak, ikasleak ikasgaiaren gaitasunak zein mailatan bereganatu dituen ebaluatzeko diseinatuta daude, ondorengo grafikoan azaltzen den legez. Hala ere, gaitasunak bereganatzeko egokiena, diseinatutako jarduera ezberdinetan esku hartzearena eta ikasgaiaren saioetara erregularitasunez joatearena da; beraz, A ebaluazio modalitatea jarraitzea gomendatzen da.



## 7. DOCUMENTAZIOA/BIBLIOGRAFIA

### OINARRIZKOA:

Aragonés, J.I. y Amérigo, M. (2010). *Psicología Ambiental*. Madrid: Pirámide. 3ª edición  
 Jiménez Burillo, F. y Aragonés, J.I. (1986). *Introducción a la Psicología Ambiental*. Madrid: Alianza Editorial.

## **OSAGARRIA:**

- Amérigo, M. (1995). *Satisfacción residencial. Un análisis psicológico de la vivienda y su entorno*. Madrid: Alianza Universidad
- Bechtel, R. B. (1996). The paradigm of environmental psychology. *American Psychologist*, 51, 1187-1188.
- Bechtel, R.B. y Churchman, A. (Eds.) (2002). *Handbook of Environmental Psychology*. New York: John Wiley & Sons.
- Canter, D. (1974). *Psychology for architects*. New York: Wiley
- Corraliza, J.A. (1987). *La experiencia del ambiente. Percepción y significado del medio construido*. Madrid: Tecnos.
- Gifford, R. (2007). *Environmental psychology: Principles and practice (4th ed.)*. Colville, WA: Optimal Books.
- Proshansky, H. M. (1976). *Environmental psychology and the real world*. *American psychologist*, 31, 303-310.
- Ross, L. y Nisbett, R.E. (1991). *The person and the situation*. New York: McGraw Hill.
- San Juan, C. et al. (2003). *Medio Ambiente y Participación*. Bilbao: Servicio de Publicaciones de la UPV/EHU.
- Stokols, D. y I. Altman [Eds.] (1987). *Handbook of Environmental Psychology*. New York: Wiley.
- Vozmediano, L. y San Juan, C. (2010). *Criminología Ambiental: Ecología del delito y de la seguridad*. Barcelona: UOC.

*Gai bakoitzaren diapositibetan (e-gelan) erreferentzia bibliografiko espezifikoak agertuko dira.*

## **BALIABIDEAK INTERNETen:**

### **Aldizkari zientifikoak:**

- ✓ [Journal of Environmental Psychology](#)
- ✓ [Environment and Behaviour](#)
- ✓ [Psyecology](#) (Lehen: [Medio Ambiente y Comportamiento Humano](#))

### **Bestelako baliabideak:**

International Association People-Environment Studies: <http://www.iaps-association.org/>

Laboratorio de Evaluación del Diseño Ambiental: <http://www.ual.es/~bfernand/index.html>

The International Society for Ecological Psychology:

<http://www.trincoll.edu/depts/ecopsyc/isep/index.html>

MSc Environmental Psychology (University of Surrey):

<http://www.surrey.ac.uk/postgraduate/taught/environmentalpsychology/>

European Commission - Directorate-General for Climate Action:

[http://ec.europa.eu/dgs/clima/mission/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/dgs/clima/mission/index_en.htm)

United Nations - Division for Sustainable Development - Publications (English & Spanish):

[http://www.un.org/esa/dsd/resources/res\\_publicorepubli.shtml](http://www.un.org/esa/dsd/resources/res_publicorepubli.shtml)

The United Nations Human Settlements Programme, UN-HABITAT:

<http://www.unhabitat.org/>

## **8. TUTORE-ORDUTEGIAK**

Tutoretza ordutegia ezagutu ahal izango da E-gelan eta irakaslearen bulegoko atean.